

## Norena da puzzle hau?



**Lehen Hezkuntza**

3-7 urte



**Maila**

Oinarrizkoa



**Denboralizazioa**

4 saio



**Kideak**

2-8 kide

### JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Kide diren ikastetxeetako ikasleek puzzleak ebazten dituzte kide bakoitza ezaugarritzen duten osagaiak zein jatorria zein den ikertzeko.

### JARDUERAREN XEDEA

1. Ikasleek elkar ezagutzea, ikastetxe ezberdinetako ikasleen arteko lehen hartumana.
2. Talde dinamika, gamifikazioa puzzleak eginez.

### JARDUERAREN GARAPENA

#### 1. Fasea: Prestatzea

##### 1. urratsa:

TwinSpacean orrialde bat sortzen da eta ikastetxe bakoitzak bere taldearen argazki bat igotzen du. Bertan, proiektua garatzeko aukeratu den osagaia, ikaslearen adina, ikastetxearen izena eta lurraldea agertuko dira.



## 2. urratsa:

Bigarren argazkia egiten da, lehenengoaren argazki bat edo aukeratutako osagaia agertzen den bat. Bigarren irudi hau puzzleak sortzen dituen tresna batera igoko da eta 8 eta 12 pieza artean dituen puzzle bihurtuko da. Lotu gabeko piezak dituen puzzlearen irudia kapturatzen da eta TwinSpaceko Irudiak-Materialak gunera igotzen da. Arbela digitalean puzzlea online egin nahi izatekotan, puzzle horretarako sortu den esteka kopiatu eta TwinSpacearen jardueraren orrialdean itsatsi.

Karpetak sortzen dira eta kide den ikastetxe bakoitzak proiektua garatzerakoan sortzen dituen irudiak igoko ditu haietara eta beste batean puzzlean egin eta inprimatzeko irudiak gordeko dira.



Irakasleek irudia inprimatu, plastifikatu eta piezak moztuko ditu.



---

## 2. Fasea: Praktikan jartzea

### 3. urratsa:

Ikasleek puzzleak ebatzen dituzte eta bukatutakoan zein ikasle-talderi dagozkien egiaztatzen dute. Irakasleek kide diren lurralde guztien talde-argazkiak TwinSpacearen lehenengo orrialdera igoko dituzte eta ondoren ikasleei erakusten dizkiete. Haiek puzzle bakoitza zein ikastetxeri dagokion asmatu beharko dute.

---

## 3. Fasea: Datuak biltzea eta jakitera ematea

### 4. urratsa:

Amaitzeko, ikastetxe bakoitzak bertako ikasleek ebatzi duen puzzle baten argazkia eta dagokion taldearen argazkia aurkeztuko ditu. TwinSpacean orrialde berri bat sortuko da argazkiak bikoteka gordetzeko, era horretan ikastetxeen nortasuna eta proiektuak irauten duen bitartean irudikatuko duen osagaia publiko egiten dira.



### 5. urratsa:

“How we work” izeneko orrialde bat sortuko da jardueraren garapen faseko argazkiak agertzeko.



### 6. urratsa:

Kideek lehenengo jarduera hau Proiektuaren Egunerokoan komentatuko dute eta irakasleen Ohol bat erabiltzen hasiko dira.



### 7. urratsa:

Nazioarteko ekipoen artean egindako talde-lana agertzen duen proiektuaren behin betiko horma-irudiaren hasiera.

## **PRODUKTUA(K)/AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)**

TwinSpacean argazkiak aurkeztea eta proiektuari buruzko behin betiko horma-irudiaren hasiera, kide diren ikastetxeei buruzko informazioa, ikastetxearen izena eta lurraldea jasoko dituen.

## **TWINSPECEKO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK**

- TwinSpacea jardueraren argazkiak edo bideoak partekatzeko.
  - Puzzlea sortzeko tresnak <http://www.flash-gear.com/puzzle/edo> [Jigsawplanet.com](http://www.jigsawplanet.com)
-